

USURBILGO HIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA

Plangintzaren irizpide eta helburuak



Usurbilgo Udala

2015eko iraila

Udaleko Hirigintza Bulegoa



Plangintzaren irizpide eta helburuak

0-AURREKARIAK.....	2
I-PLANGINTZAREN IRIZPIDE ETA HELBURU OROKORRAK.....	3
II-PLANGINTZAREN IRIZPIDE ETA HELBURU ZEHATZAK.....	6

Plangintzaren irizpide eta helburuak

0-AURREKARIAK

INDARREAN DAGOEN PLANGINTZA OROKORRA

2013ko uztailaren 22an, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuko arduradunak Usurbilgo Plangintzako Hiri Antolaketako Arauen Berrikuspenaren Testu Bategina onartu zuen; ondoren, 2013ko Irailaren 10ean, GAOn argitaratua izan zen Testu bateginean jasotako araudia.

2013an behin betiko onartutako Testu Bateginaren agiri honek 2004an onartutako Arau Subsidiarioen dokumentua du ardatz; hau da, dokumentu horri Diputatuen Kontseiluak eskatutako zuzenketak eta baldintzak erantsi eta 2004az geroztik Hiri antolaketako Arauetan onartutako aldaketak jaso besterik ez du egiten. Orduz geroztik, indarrean sartutako hainbat Hirigintza Legedi eta Araudi Sektorialetera ere ez da egokitu (Lurzoru eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea eta hau garatzen duten ondorengo Dekretuak, besteak beste).

USURBILGO HIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRAREN IDAZKETA

Usurbilgo Udala Usurbilgo Hiria Antolatzeko Plan Orokorraren berria lantzen hasi zen 2014ko Maiatzean. 2014ko Azaroan Diagnostiko Dokumentua amaitu zen eta 2015eko Martxoan, berriz, Aurrerakin dokumentua. Azken hau, 2015eko apirilaren 1ean udal idazkariak lege txostena egin ostean, 2015eko apirilaren 17ko Alkatearen 2015/0320 dekretuz jendaurrean jarri zen bi hilabetez. Hala, batetik, 2015eko apirilaren 21ean iragarkia argitaratu zen BERRIAN eta Dvn eta 23an GARA; eta, bestetik, 2015eko apirilaren 23an GAOn argitaratu zen eta iradokizunak aurkezteko jendaurreko epea zabalik egon da ekainaren 24a bitartean. Tarte horretan zazpi iradokizun jaso dira; hauek erantzuteko dagokion txosten teknikoak idatzi da.

Usurbilgo Udalak HAPO berria idazteko, batetik, herritarrekin batera herriaren egungo egoeraren diagnostikoa osatzea eta, bestetik, aurrerakin dokumentua diseinatzeko herritarren proposamenetan oinarritzea erabaki zuen. Hala, Hirigintzako Plan Orokorraren Aurrerakina osatzeko prozesua bi fasetan egiteko diseinatu zen: Lehen fasean, lan prozesua antolatu zen, herritarrekin egingo zen lan irekirako baldintzak sortu ziren. Horrela, herritarrek beraien herriaren egoera aztertu eta diagnostikoa egin zuten modu parte hartzailean. Hobetu beharreko egoera eta elementuak identifikatu zituzten eta Plan Orokorraren diseinuan kontuan hartu daitezkeen hainbat irizpide eta ekintza zehaztu zituzten. Urtarrila eta martxoa bitartean egin zen bigarren fasean, Udalak landutako aurrerakin dokumentuaren gainean egin zen lan. Kasu honetan ere herritarren parte-hartze zuzena izan zen dokumentu hori errebisatu eta fintzeko, parte hartzeko prozesuan ateratako hainbat alderdi kontuan hartu zirela aztertzeko.

Bestalde, 2015eko Uztailan Usurbilgo Hiria Antolatzeko Plan Orokorraren Hasierako Dokumentua idatzi du Ekolur S.L.L. enpresak Usurbilgo Udalak hala eskatuta. Honen helburua planak ingurumenaren gainean duen eragina ebaluatzea da. Dokumentu hau dagokion ingurumen organoari igorri zaio, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Zuzendaritzari, hain zuzen ere.

I-PLANGINTZAREN IRIZPIDE ETA HELBURU OROKORRAK

HIRIGINTZA JASANGARRIAREN ETA EKOLOGIKOAREN IRIZPIDEAK BARNERATZEA

Hirigintza jasangarriaren edo ekologikoaren printzipioak bereganatzea da Usurbilgo HAPO berriaren helburu orokorretako bat.

Jasangarritasunak leku eta egoera bakoitzeko kondizioei egokitutako irtenbideak lortu behar ditu. Ezin dira leku-mota guztietan esku hartzeko era homogeen edo estandarren aplikatu. Jasangarritasunak ez du inoiz uniformetasuna ekartzen; izan ere, hirien edo lurraldeen nortasuna errespetatzen du. Hala ere, proposamenak leku eta egoera bakoitzera egokitu beharko diren arren, hirigintza jasangarriaren zenbait irizpide zerrendatu ditzakegu. Honakoak dira, besteak beste:

_Balio ekologiko eta natural gehien duten eremuak babestea.

_Lurzoruaren gehiegizko kontsumoa ekiditen duen hiri trinkoa aukeratzea; hala, bizitza soziala eta garraio kolektiboa ahalbidetzeko. Ondorioz, hirigintza-eredu sakabanatuak baztertzea.

_Eraikita eta zahartuta dauden eremuak birsortzea eta trinkotzea, eta dituzten beharrei erantzutea. Horretarako, batetik, bertako eraikinak birgaitu eta berrerabiliko dira, lekuaren izaera eta ezaugarriak errespetatu eta mantendu nahian. Eta, bestetik, dagoeneko hiritartuta dagoen lurra optimizatuko da, dauden hutsuneak eraikiz eta trinkotuz.

_Erabilera eta tipologiaren nahasketa lortzea, horrela, biztanleen dibertsitatea ere lortuz eta erabilera desberdinenaren hurbiltasuna bermatuz.

_Ekipamenduak eta zerbitzuak era orekatuan banatzea herriko auzo ezberdinetan. Hala, distantzia motzeko hiria lortzeko eta herritarrek hauekiko hurbiltasuna izateko.

_Mugikortasun jasangarria sustatzea; batetik, distantzia motzetan oinezkoen eta bizikleten erabilpena erraztea ibilgailuaren gehiegizko erabilera ekidinez; eta, bestetik, ibilbide luzeetan garraio individualaren ordez garraio publikoa lehenestea.

_Kalitatezko espazio publikoen sistema eratzea, kondizio klimatiko egokiak dituen eta elkarbizitza eta hiriko bizitza erraztuko dituen.

_Gune berdeen sarea diseinatzea, maila guztietako elementuekin. Hala, hiriak barnean hartzen dituen gune naturalak berreskuratuko ditu eta kanpoko parkeekin eta gune natural babestuekin lotuko ditu, sistema naturalek jarraitasuna izan dezaten eta natura hirian integra dadin.

_Hiri-sistema efiziente bat diseinatzea, baliabideen kontsumoa gutxitzeko helburuarekin.

_Herritarren parte-hartzea plangintzaren fase guztietan egon dadin bermatzea eta plangintza osatzeko herritarren iritzietan eta proposamenetan oinarritzea.

HERRITARREN PARTE-HARTZEAREN BEHARRA

Parte hartzeko eta eraikuntza kolektiboaren ikuspegiarekin koherentzia izateko, Usurbilgo Udalak erabaki zuen Hiria Antolatzeko Plan Orokorraren Aurrerakina egiteko prozesuak izango dituen fase guztietan herritarrekin parte hartzeko prozesu bat garatzea.

Aurretik adierazi den moduan orain arte gauzatu den parte-hartze prozesua bi fasetan gauzatu da. Lehenik, diagnostiko dokumentua osatu da eta aurrerakin dokumenturako irizpideak finkatu dira; eta, ondoren, aurrerakin dokumentu horretako proposamenak berraztertu eta egokitu dira. Hemendik aurrera ere HAPO berriaren idazketa herritarrekin batera egiten jarraitzea da helburu orokorretako bat.

GENERO IKUSPEGIA AINTZAT HARTZEA

Azken urteetan, 2005. urtean Gizonen eta Emakumeen arteko Berdintasunerako 4/2205 Legea, otsailaren 18koa, onartu zenetik hirigintzan genero ikuspegia aintzat hartzea beharrezkoa dela konturatu gara. Honen harira, Eusko Jaurlaritzak 2010ean “Hiri analisirako manuala. Generoa eta eguneroko bizitza” gidaliburua eta 2012an “Hirigintza barneratzailea. Kaleek badute generoa” bilduma-liburua ere argitaratu ditu, besteak beste. Horregatik, Usurbilgo HAPO berriaren beste helburu orokor bat da genero ikuspegia aintzat hartzea.

Hala, Eusko Jaurlaritzak 2010ean argitaratutako “Hiri analisirako manuala. Generoa eta eguneroko bizitza” gidaliburuko zenbait atal jasotzen dira jarraian.

Hirigintzaz eta generoaz hitz egiten dugunean, bizitzeko egokiak diren hiriak eraikitzeaz hitz egiten ari gara; hiri abegitsu, atsegin, bero eta tolerantetz. Erritmo indibidualak eta kolektiboak bateratzen uzten duten hiriez ari gara, espazio eta eraikin publiko guztietara pertsona guztiak sarrera izatea bermatuko duten hiriez, memoria historikoa baloratu eta inguruarekin harmonia bilatuko dutenez.

Sistema naturalaren berreskuratzea eta birsonkuntza bermatzeko hiri iraunkorrak sortu behar ditugu, etorkizuneko belaunaldien beharrak asetzeko. Hiri horretako biztanle guztiak pertsona gisa gauzatzeko aukerak izan eta zorientasuna bila dezaten. Bizitzen utziko digun hiria; zaintzen, zaindu gaitzaten, jolasten, elkarbizitzen, amesten eta partekatzen.

Genero-ikuspuntua faktore erabakigarria da, denok aukera eta eskubide berberak izango ditugun hiria proiektatzeko asmoa dugunean.

Herritarren segurtasuna lehentasunezko gaietako bat da aukera-berdintasuna denontzat berbera izateko garaian, leku seguru eta biziak berdintasunezko sarrera eta erabilera sortzen baitute.

Emakumea Hirian Europako Itunak lehentasunezko gaitzat hartzen du.

Hiri-espazioan esku hartzean, segurtasunaz ari garela, bi ildo nagusirekin egingo dugu topo: arlo fisikoa eta soziala. Biak dira beharrezko eta osagarriak, gaia bere konplexutasun osoan hartu nahi badugu.

Eraikitako inguruari buruz leku bakoitzean aztertzea garrantzitsuak diren faktoreak zehazten dira, besteak beste gidaliburu horretan:

_Erabilerak: Etxebizitzagunea, merkataritzagunea, hornidura, lan ugalkorra, produkzio-lana eta abar. Erabilerak eta erabileren denborak. Aztertu beharreko lekuan eguneko ordu ezberdinetan egiten diren ekintzen identifikazioa.

_Funtzio bakarreko espazioak saihesti. Ordu jakin batzuetan soilik dago horietan jarduna, eta autoz soilik iris daiteke haietara. Erabileren nahasketa bultzatu. Oinez irits daitezkeen lekuak dira egokienak, bai espazio publikoaren erabileran berdintasuna ziurtatzeko, eta baita segurtasun-sentsazioa edukitzeko ere.

_Jendetza-fluxuak.

_Garraio publikoaren geltokiak, ekintza-nodoen erakarle. Ekintza asoziatuak, itxarotedenbora, topaketa...

_Egoteko lekuak. Espazioan dauden pertsonak, taldeak, zaharrak, umeak, familiak, zaintzaileak...

_Landaretza. Ikusmen-kontrola hobetzen edo murrizten duen ikusi behar da.

_Ikusmen-ibilbide nagusiak eta bigarren mailakoak. Lehentasunezko ibilbideak. Espazioan dugun ikusmen kontrolaren azterketa. Arreta berezia eskatzen dute lur azpiko parkingek, hango sarrera-irteerek eta etxeetako atariak.

_Kale betea, kale segurua.

_Kalean bitzita eta mugimendua sorraraztea da segurtasuna bermatzeko modu onena. Aztertu behar da ea espazioak berak lekua bizia izateari mesede egiten dion.

_Lehentasunezko ibilbideetan argizatze egokia garatu: oinezkoari zuzendutako argizatzea, eta ez autoei zuzendutakoa, hori oinarritzakoa baita leku bat segurutzat jotzeko.

_Ikusmenaren kontrola zailtzen duten elementuetan gardentasuna. Garraio publikoaren geltokietan, atarietan.

HIRIGINTZAK EUSKARARENGAN DUEN ERAGINA NEURTzea

2014ko urtarrilean egin zen 'Lurraldea eta Hizkuntza' lehen jardunaldia. Geroztik hainbat erakunde lanean ari dira herri euskaldunen garapenaren ikuspegi integral bat eskaini nahian (etxebizitza beharrak, garapen ekonomikoa, azpiegitura handiak, kultur egoera...) eta garapen horrek euskaraz bizi diren herrietan izan ditzakeen eraginez gogoeta egiten.

Gaia oso berria den arren HAPO berriak ikuspegi hau ere kontutan edukiko du bere antolaketa proposamenak egiterakoan; hala, etorkizunean hirigintzak euskararengan duen eragina lantzen ari diren erakundeek ezarritako jarraibideak kontutan izango dira, besteak beste.

II-PLANGINTZAREN IRIZPIDEAK ETA HELBURU ZEHATZAK

INGURUNE FISIKOA

1. HELBURUA. Baso lurzoruaren multifuntzionaltasuna bermatzea, natur zikloak aintzat hartuko dituen baso erabilera orekatua sustatuz eta bertako basoaren babes eta birsorketarako lurzoru berriak gordez.

Batetik, Nekazaritza eta Basogintzako LAPak jasotako zehaztapenak betetzea aurreikusten da. Horrez gain, gaur egun egoera kritikoa dauden bertako baso naturalak babestea eta berreskuratzea ere bai (hariztiak, haltzadiak, pagadiak eta ameztiak).

2. HELBURUA. Gaur egungo nekazaritza lurzoruek hartzen duten azalera babestea.

Ahalmen agrológico altuko eremuak babestea proposatzen da; hala, Nekazaritza eta basogintzako LAP-ak balio estratègiko altuko lurrak bezala izendatutako eremuak nekazaritza erabilerarako lehenestea proposatzen da.

3. HELBURUA. Tokiko bioaniztasuna, baliabide hidrològikoen eta paisaiaren kalitatea bultzatuko duen garapena sustatzea.

Baliadun habitat eta espezieen babes neurriak bultzatuko dira. Ibaia bere osotasunean aintzat hartu, eta ubideaz gain, ibai ertza, arroa eta akuiferoen prozesu ekologikoko errespetatuko dira eta eguneroko jarduera eta garapenak udalerriko paisaian duten eragina aintzat hartuko dute.

4. HELBURUA. Ingurumen-prozesu eta arriskuak aurreikustea.

Plangintzaren proposamenetan ingurumen prozesu eta arrisku desberdinak kontutan hartuko dira; besteak beste, uholde-arriskua, akuiferoen kutsadurarekiko urrakortasuna, higadura arriskua duten eremuak eta kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak kontutan hartzen dira.

ETXEBIZITZAK

5. HELBURUA. Usurbildarren beharrei erantzuten dien etxebizitza kopurua eta tipologia proposatzea.

Usurbildarren etxebizitza beharrei erantzuteko adinako etxebizitza kopurua proposatu nahi da. Horretarako diagnostikoko sozio-demografia ataleko datuak, Aztikerrek 2.010ean egindako Usurbilgo etxebizitza premia eta eskaria neurtzeko ikerketa eta azken urteetan eraikitako etxebizitza berrien kopurua hartu dira kontutan, besteak beste.

Etxebizitza tipologia ere berraztertu beharko dira; hau da, diagnostikoko datuen arabera Usurbilgo etxebizitzaren batz besteko azalera 98m²-koa da. Eta datu sozio-demografikoen arabera etxebizitza bakoitzean bizi den batz-besteko pertsona kopurua 2,6koa da, besteak

beste. Hortaz tamaina ezberdinetako etxebizitzak proposatu beharko dira, eta bereziki etxebizitza txiki gehiago.

Etxebizitza auzoetan egoitza erabilerarekin bateragarriak diren erabilerak ere berraztertu beharko dira; izan ere, lehengo auzoak biziberritzeko edo eraikitzen diren etxebizitza auzo berriak ere "lotarako auzo" bihurtu ez daitezzen neurriak hartu beharko dira. Ahal den neurrian erabileren nahasketa planteatu beharko da.

6. HELBURUA. Donostiako Eremu Funtzionaleko Lurralde Plan Partziala eta Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak ezartzen dutena betetzea etxebizitza kopuruari buruz, besteak beste.

Usurbilgo beharrak asetzeko beharrezko etxebizitza kopurua zehazteko Donostiako Eremu Funtzionaleko Lurralde Plan Partzialak jasotako kopurua ezin da ezarri, plana ez baita oraindik onartu. Izan ere, 2010eko uztailaren 16an Haserako Onespina jaso bazuen ere, egun moldatutako bertsio berri bat lantzen ari dira berriz ere hasierako onarpenera eman dakion. Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan ezarritako kopurua, berriz, berraztertzen ari dira. Hala, dokumentu honek 2014ko ekainaren 4an hasierako onespina jaso zuen. ELA Gen aldaketa-dokumentu horretan jasotzen denaren arabera, aldaketa honen helburua planifikatutako etxebizitza kopurua gutxitzea da, hiri-garapen jasangarri baterako estrategiak ezarriz. Usurbilgo udalerrriaren kasuan 2014-2022 planeamendu-denboraldirako gehienez 985 eta gutxienez 493 etxebizitza planifikatzeko aukera jasotzen du aldaketa honek.

Aldaketaren agiria jendaurrean jarri eta entzunaldia egin zen 2014ko irailaren 30a arteko epea ezarriz zegozkion alegazio, ohar edo iradokizunak egin ahal izateko. Hala, Udalak alegazioa aurkeztu zuen Usurbilgentzat proposatutako etxebizitza kopurua gehiegizkoa zela adieraziz eta kopuru hori gutxitzeko eskatuz. Orain jaso berri du Udalak alegazioen erantzuna; bertan etxebizitza kopurua kalkulatzeko hainbat irizpide egokituko direla esaten den arren ez da Usurbilgo irizpide horiek zuzendu ondoren ezarriko zaion kopurua zehazten. Beraz, gaur egun lehen aipatutako eta hasierako onespina jaso zuen ELA Gen aldaketa-dokumentu horretan jasotzen diren kopuruak hartuko dira erreferentziatzat; gehienez 985 eta gutxienez 493 etxebizitza planifikatzeko aukera, hain zuzen ere.

7. HELBURUA. Indarrean dagoen plangintzan aurreikusten diren etxebizitza kopurua gutxitzea.

Indarrean dagoen plangintzaren arabera gaur egun eraiki daitezkeen 1.090 etxebizitzaren kopurua gutxitu beharrean aurkitzen gara; batetik, Usurbildarren beharrak asetzeko beharrezko etxebizitza kopurua askoz baxuagoa delako eta, bestetik, ELA Gen ezarritako kopuruak betetzeko. Gutxitze hau proposatzerakoan eremu bakoitzaren baldintza partikularrak eduki beharko dira kontutan; plangintzaren garapen maila eta lege-egoera, besteak beste.

8. HELBURUA. Eraikita dauden etxebizitza auzoak birgaitzea, berritzea, birsortzea.

Oro har, 1980 urtea bitartean eraikitako etxebizitza eraikinak eta auzoak birgaitzea sustatu beharko litzateke bertako bizilagunen bizigarritasun baldintzak eta erosotasun maila hobetzeko eta eraikinek duten energia gastu altua gutxitzeko. Gainera, babestutako ondarea dagoen auzoetan, eraikitako ondare hori balioan jarri eta bertako ekonomia aktibatzekeko urratsak eman beharko lirateke. Hala, eraikitako auzoak, eta, batik bat erdigunea, espazio bizi bihurtzeko.

1980 urteaz geroztik eraikitako etxebizitza auzoetan, eraikinen ezaugarriak eta baldintzak egokiagoak dira; kaleetako urbanizazioa ere berriagoa da. Baina, zenbaitetan auzoetan etxebizitzak eta garajeak beste erabilerarik ez egoteak ez du errazten kale horietan jende asko ibiltzea. Egoera hau aldatzea zaila da, oro har. Hala ere, arazo honi konponbidea ematerik ba

ote dagoen aztertu beharko da; horretarako, auzo horietan beste erabileraren bat txertatzeko aukera ikusi beharko da, besteak beste.

9. HELBURUA. Hiritartutako lurraren optimizazioa eta lur berriak ahalik eta gutxien okupatzea.

Etxebizitza berriak eraikitzeke guneak aukeratzekoan kontutan izan beharreko lehen irizpidea hiritar eremuaren erabilpena optimizatzea da, lur berriak ahal den gutxien okupatuz. Hala, lehendik hiritartuta dauden lurak berrerabiltzea izango da lehen helburua. Gero, hiri barruan geratzen diren hutsuneetan eraiki beharko da; hala, hiriaren jarraitasuna bermatzeko. Azkenik, eta beharra egongo balitz, hiritik gertuen dauden lurak erabiliko dira. Dena dela, egoitzazko eremu hauek pixkanaka eta ordenatuta garatzen joateko programazio bat egitea beharrezkoa izango da.

10. HELBURUA. Eraikuntzak eta urbanizazioak jasangarritasun-irizpideekin eraikitzea eta birgaitzea.

Eraikuntza berrietan nahiz birgaitzeetan jasangarritasun-irizpideak erabiltzea sustatuko da; hala, erabiliko diren materialak eta diseinuak ahalik eta jasangarrienak izango dira eta energia berriztagarriak erabiliko dira. Horretarako dagokion araudia definitzea komeniko litzateke.

JARDUERA EKONOMIKOAK

11. HELBURUA. Lehen sektorearen garapen ekonomikoa sustatzea.

Ingurumen aurre-diagnostikoan jasotzen den moduan Usurbilgo udalerriko lurzoru gehiena baso-lanerako baino erabili ezin diren lurak dira. Nekazaritzarako ahalmen handiena duten lurak azalaren %9a hartzen dute eta Oria ibaiaren ibarrean kokatzen dira gehien bat. Nekazaritzarako baliorik gabeko lurak azken hamarkadetan gorakada jasan dute hirigintza- eta industria-garapenen ondorioz. Nekazaritza-abeltzaintza eremuan balio estrategiko altuko 258,27 ha daude Nekazaritza eta Basoak antolatzeko LAParen arabera; azalera hau Oria ibaiaren ibarrean eta udalerraren ipar-erdiaren artean sakabanatuta dago.

Usurbilgo nekazaritza eta abeltzaintza jardueri buruzko azterketaren arabera Usurbilen ere profesionalki edo partzialki sektorean lan egiten duten ustategi kopurua murrizten ari da. Hala ere, autokontsumorako jarduten duten baserrien ehunekoa areagotu da, bai lursailei garbi eusteko modu gisa, bai tradizioagatik eta kulturagatik. Hain zuzen, azken talde hori baserrien % 26 izatetik % 66 izatera iritsi da, eta horrek erakusten du gure inguruneari eustean izan dezaketen garrantzia.

Landa-eremua eta lehen mailako sektorea beharrezkoa da elikagaiak hornitzeko eta nekazaritzako paisaia tradizionala gordetzeko. Abeltzaintza estentsiboko jarduerak ekoizpen-abeletxe txikiekin eta nekazaritzako jarduerarekin bateratu daitezke. Eta nekazaritza eta elikadura arloko industria txikiek bermatuko dute tokiko merkatuetan produktuak bertatik bertara banatu ahal izatea.

Azken urteetako hirigintza- eta industria-garapenen ondorioz eratorritako nekazal-lurren desagertzea eta lehen sektoreko jardueren murrizketa ikusirik neurriak hartu behar dira egoera hau aldatzeko. Besteak beste, nekazaritzarako egokiak diren lurak hirigintza-garapen berrietatik babestea da hartu beharko litzatekeen irizpideetako bat.

12. HELBURUA. Herri-merkataritza indartzea Usurbilgo herrigunea bizi-berritu asmoz.

Siadecok “Usurbilgo merkataritza eta ostalaritza biziberritzeko plangintza” idatzi zuen Usurbilgo udalarentzat 2009an. Ordutik hainbat ekintza gauzatu dira helburu hau lortzeko. Bestalde, “Usurbilgo herriguneko merkataritza lokal hutsen azterketa” ere egin zuen Siadecok 2013an. Azterketa hauek garbi uzten dute herriguneko merkataritza biziberritzeko zeregin asko dagoela oraindik egiteke, nahiz eta egindako hainbat ekintzek bere hobekuntzak adierazi dituzten dagoeneko. Kale Nagusiak gaur egun duen egoerak ere badu zer-esanik gai honen inguruan. Beraz, hirigintza plangintzatik ere komeni da herrigunea biziberritzeko helburua lortzeko esku-hartzeak eta estrategiak proposatzea.

Hala, oinezkoen eta bizikleten guneak indartzea eta gune hauetako espazio publikoa hobetzea izan daiteke hartu beharreko bidea. Erabilera ezberdin gehiago nahastea ere proposatu daiteke, ekipamendu berriren bat edo zerbitzuguneren bat, adibidez; modu horretan, kale edo gune horietan oinezkoen eta bizikleten fluxua ugaritzea lortuko litzateke.

Bestalde, herrigunean bertan edo herrigunetik gertu ez dauden merkatalgune handiak eraikitzea saihestu egin beharko da; baita lehendik daudenen handitzeak ere.

13. HELBURUA. Eraikita dagoen jarduera ekonomikoetako lurzorua birsortzea, berrerabiltzea eta birgaitzea.

Lur berriak okupatzeko aukerari ekin aurretik finkatutako industria-lurzorua nola mantendu, hobetu eta berrerabili ondo aztertu beharko litzateke. Eraikitako lurzoru industrialaren diagnostikoko atalean argi azaltzen da Usurbilgo hainbat industrialde degradatuta eta utzita daudela. Beraz, plangintzak lurzoru hauek birsortzeko, birgaitzeko, berrerabiltzeko proposamenak jaso beharko ditu, batetik. Bestetik, badira hiritartuta eta eraikitzeko prest dauden lursailak edo lursailen zatiak ere; eta baita urte askotan industria-eraikinak izan dituztenak eta azken urteetan eraisketa ugari egin ondoren berreraikitzeko prest dauden lurrak ere.

Lur hauetan esku-hartze ezberdinak proposatu daitezke eraikitako ondarea berrerabiltzeko eta baliabideak optimizatzeko helburuarekin; hori da jasangarritasun ikuspegitik hartu beharko litzatekeen irizpidea; eraikita dagoena eta berrerabili daitekeena birgaitu edo mantendu, eraikigarritasun handitzeak proposatu zenbaitetan eta hutsik dauden orubeetan ere eraikigarritasun handiagoko eraikinak proposatu. Hala, orain arte garatu diren lurzoru industrialen okupazio izugarri horiek gutxitu eta eraikin bertikalagoak proposatu daitezke lur gutxiago okupatuz, beti ere jardueren beharrak aintzat hartuta. Bestalde, jarduera ekonomikoetako erabilera ezberdinen nahasketa egotea ere aberasgarria litzateke. Eta baita azpiegitura amankomunak aurreikustea ere.

EKIPAMENDUAK

14. HELBURUA. Gaur egungo ekipamenduen egokitzea eta optimizazioa biztanleriaren hazkunde posiblearen baitan.

Oro har, Usurbilgo ekipamenduen sarea nahiko aberatsa dela adierazi da diagnostikoko datuen arabera. Herriguneari dagokionez, batik bat, oinarrizko ekipamenduen kopurua eta gertutasuna egokitzea har daiteke. Eraikinen egoera eta baldintzei dagokienez, ordea, zenbait ekipamenduk dituzten beharrak ezin aipatu gabe utzi: eraikin batzuk zahartuta daude (musika eskola esaterako) eta zenbaitek berrantolaketa baten beharra ere izan dezakete. Hortaz, Hiria

Antolatzeko Plan Orokor berriak hartu beharreko irizpideetako bat handitzeak behar dituzten eraikinak zehaztea izango da, besteak beste. Horretarako, noski, plangintzaren proposamenen ondorioz sor daitezken beharrak aurreikusi beharko dira; hau da, biztanleriaren hazkunde posible bat egongo balitz ekipamenduen sareak behar horiei erantzuteko kuantifikatu beharko lirateke.

15. HELBURUA. Ekipamendu berrien aurreikuspena.

Herritarrekin egindako parte-hartze prozesuko ekarpenen artean zenbait ekipamenduren eskaera egon da: zaharren egoitza, estalitako kirol pista, e.a. Duela urte batzuk Usurbilen Zaharren Egoitza eraikitzeo proiektua landu zen. Gaur egun ere badago aukera hori baina azken urteetan ez du aurrera pausurik eman, udalaren esku ez dauden arrazoiengatik. Herritar batzuegandik honelako edo beste modu bateko adineko jendearentzako ekipamendu baten eskaera jaso da parte hartze bileretan. Beraz, hau izan daiteke proposatu daitekeen ekipamendu berri bat. Aukera hau jaso beharko du HAPO berriak. Kirol pista estali baten aukera ere jaso daiteke. Ekipamendu berriak proposatzerakoan ere, plangintzaren proposamenen ondorioz sor daitezken beharrak aurreikusi beharko dira

BERDEGUNEAK ETA ESPAZIO PUBLIKOAK

16. HELBURUA. Berdeguneen eta espazio publikoen sarea handitzea eta egokitzea

Herriguneko berdeguneak ez dira oso ugariak. Gainera, oso irisgarriak ez direlako, jarraitasunik ez dutelako, e.a. ez dira espazio biziak. Auzoetan, berriz, Aginaga eta Txokoaldeko kaxkoetan, besteak beste, ez dago berdegune publikorik ia. Egia da auzo hauek landa ingurunean txertatuta daudela baina eremu hiritarrean lorategi eta baratza pribatuak badituzten arren ez dute berdegune publikorik. Beraz, plangintzak berdegune publiko berriak lortzeko proposamen bideragarriak jaso beharko ditu, oro har.

Bestelako espazio publikoei dagokienez (plazak, jolas parkeak), herrigunean batik bat, nahiko ugariak dira; baina espazio publiko horien elkarren arteko loturan ez da oinezkoen lehenetsua nabarmentzen. Izan ere, kaxkoko oinezko gunea eta Artzabalgo plaza kenduta gainontzeko espazio publikoa oso zatikatuta, isolatuta dago. Auzo batzuetan ere oinezkoen guneen eskasia nabarmentzen da; Aginagako eta Txokoaldeko erdigunean, batik bat. Beraz, herrigunean espazio publikoen edo plazen arteko lotura indartu beharko da, batez ere. Aginagako eta Txokoaldeko erdiguneetan, berriz, gaur egungo plazak handitu eta egokitzeko irizpidea txertatu beharko da jarduera bideragarrien bidez, noski.

Guzti hau, besteak beste, herri-barruko mugikortasun ereduarekin erabat erlazionatua dago. Beraz, mugikortasuna eta espazio publikoen sarearen azterketa bat egitea komeniko litzateke HAPO berriaren osagarri.

MUGIKORTASUNA

17. HELBURUA. Mugikortasun jasagarria bultzatzea.

Usurbilgo udalerrria Lasarte, Donostia eta Oriorekin lotzeko oinezkoen eta txirrindularien bide-sarea garatzea proposatzen da. Hala, Gipuzkoako Lurralde Arloko Planeko Donostia-Mutriku sareko trazadura jasotzen da, besteak beste. Sare honek Usurbilgo auzoak ere batzen ditu. Bestalde, herriarteko sarea herrigunekoarekin ere lotzea proposatzen da. Bizikerrek

2013an egindako “Bizikleta mugikortasun sisteman integratzeko proposamena” ere barneratzea irizten da. Herrigunean ere, bizikleta-bideen sarearekin batera oinezkoei lehenetasuna ematen dien sare bat egituratzea proposatuko da. Oinezkoen eta bizikleten sarea tren geltokia eta herrigunea lotzeko ere aurreikusiko da.

18. HELBURUA. Errepide sarearen egokitzea, herriko eta auzoetako sarrera-irteerak hobetzeko eta ibilgailuen trafikoa herrigunetik ahal den neurrian aldentzeko

Azken urteetan aztertu diren herriko zenbait auzo eta industrialdeetako sarrera-irteerak berreskuratzea eta berraztertzea proposatzen da. Batetik, Ugaldea industrialdeko sarrera eta Ugaldea eta Atallu industrialdeen arteko lotura bereganatzea irizten da. Bestetik, aurretik aztertu diren beste soluzio-bide batzuek (Txokoalde auzoko sarrera berria, Txikierdi-Zubietako biribilguneak eta zubia, Kalezarrera zuzenean iristeko sarrera berria) berraztertzea proposatzen da; beharrik ba ote dagoen, lehenik, eta, hala bada, ahalik eta soluzio egokiena bilatzea, ingurumen jasangarritasuna eta jasangarritasun-ekonomikoa aintzat hartuta. Soluzio-bide berriren bat ere jasotzen da, beti goian aipatutako helburuari jarraiki.

19. HELBURUA. Auzoetako aparkaleku beharrei erantzutea

Diagnostikoko Mugikortasuna atalean adierazi zen moduan Atxegalde, Santuene eta Kalezar auzoak dira aparkaleku falta nabarmenena duten eremuak. HAPO berriak arazo honentzako konponbidea proposatu beharko du.

20. HELBURUA. Usurbil zeharkatzen duen ETS-ko trazadura eta geltoki berriaren proiektua jasotzea.

EAEko Trenbideen Azpiegitura Antolatzeko Lurralde Plan Sektorialean jasotako Zumaia-Donostia zatiko jarduera-proposamenek Usurbilgo udalerriri eragiten diote, besteak beste. Honen harira, Lasarte-Usurbil zatiko trenbidearen bikoizketa proiektua idatzita du ETSk. Egoera ekonomikoa aldatzen denean Lasarte-Usurbil zati honetako obra-lan hauek izango omen dira lehenengo egingo direnak, ETS-ko arduradunen hitzetan. Usurbil-Orio zatian, berriz, oraindik ez dago onartutako proiekturik.

Bestalde, Usurbilgo tren-geltokia N-634 errepidearen ondoan, Ingemar lantegitik gertu, Atallu eta Zumartegi industrialdeen elkargunean dago eta N-634aren gainetik pasatzen den oinezko pasabide batek lotzen du herri-gunearekin. ETS-ek Usurbilgo Tren Geltoki berria egiteko proiektua idatzi zuen 2010ean. Proiektu horrek Geltokia eta trenbidearen gainetik doan pasabidea barneratzen ditu. Pasabideak Usurbilgo herrigunea Santuene auzoarekin eta industrialdearekin lotuko lituzke, gaur egungo trenbide-pasabidea ezabatuz, eta ondorioz baita honek suposatzen duen arriskua ere.

Azpiegitura guzti hauek HAPO berrian barneratzen dira.

INTERES HISTORIKO-ARTISTIKOA ETA KULTURALA

21. HELBURUA. Interes historiko-artistiko eta kulturaleko elementuak babestea.

Udalerrian eraikuntza berezia dutelako edo balio estetiko, kultural edo historiko-artistikoak dituztelako bereziak diren mota guztietako eraikinak biltzen dituen katalogo bat badu Usurbilek gaur egungo hirigintza araudian barneratuta. HAPO berrian katalogo hori osatzea proposatzen da.

Horretarako, Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Kultura Ondarearen Zuzendaritzak, 2011ko maiatzaren 18an egindako txostenean, babestutako ondarearen katalogoa osatzeko gomendioa egiten dio Usurbilgo udalari, txosteneko eranskinean jasotzen denaren arabera; eranskin horretan babestea proposatzen diren ondasun higiezin bi zerrenda bereizten dira, besteak beste: monumentu izendatzeko ondasun higiezin zerrenda, batetik, eta herri mailako babes izateko moduko ondasun higiezinak, bestetik. Aipatzekoa da, beste batzuen artean, industria-eraikinak babestea ere gomendatzen duela.

Hala, HAPO berriak, besteak beste, zerrenda hori berraztertu eta gaur egungo katalogoa osatzea proposatzen da.

ZERBITZU-AZPIEGITURAK

22.HELBURUA. Saneamendu sarea berritzea eta Loiolako araztegi bideratzea.

Usurbilgo herriguneko saneamendu sarea berritzeko eta bideratzeko proiektua idatzita dago eta obra-lanak gauzatzen ari dira. Hala, gaur egun Oria ibaira isurtzen diren ur-zikinak Loiolako araztegi bideratuko dira epe motzean. Usurbilgo sare orokorrera lotuko den Aginaga eta Txokoalde auzoetako sarearen proiektua, berriz, idazten ari dira. Azkenik, Zubietako sarea ere Lasartekoarekin batzeko aurreikuspena dago. HAPO berriak sare hauen trazadura jasoko du.

23.HELBURUA. Energia berriztagarriak sustatzea.

Usurbilgo HAPO berriak energia berriztagarriak sortzeko azpiegiturak sustatuko ditu. Ekipamendu publikoetan, birsortutako eremuetan edo garapen berrietan energia berriztagarriak erabiltzea bermatuko da. Aztertu egin behar da Usurbilgo udalerrian zein aukera dauden eta zeintzuk diren bideragarriak, gero dagozkion aukerak HAPOak bereganatzeko.

24.HELBURUA. Argiztapen publikoaren sistemen diseinuak irizpide jasangarriak aintzat hartzea.

Sare berriak diseinatzen direnean efizientzia energetikoko irizpideak hartuko dira oinarritzat. Lehendik dauden sareak ere eraberritzen doazen heinean irizpide hauek jarraituko dituzte.